



PRENTSA OHARRA

“Bosgarren edukiontzia eta etxeko konpostajea jarriko dituzte lurretan eta Abadiñon”

Durango. 2014ko urtarrilaren 22an

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoak proiektu pilotu bat abiarazi du lurretan eta Abadiñon. Proiektu horrek bi helburu izango ditu: batetik, bosgarren edukiontzia edo edukiontzi marroia jartzea hiri-guneetan; eta, bestetik, etxean konpostatzeko sistema bat abiaraztea landa-eremuetan.

- Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoak kudeatuko ditu edukiontzi berria ezartzeko kanpaina eta autokonposta egiteko sistema.
- Proiektua Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatuta dago.
- Herritarrei eta hondakinen ekoizle txiki eta handiei informazioa emateko kanpaina bat jarriko da abian, eta ekimen berriak jakinaraziko zaizkie.
- Edukiontzi berria marroia izango da, eta hondakin organikoak etxeko gainerako hondakinetatik bereizi ahal izango dira.
- Lorategia edo lurra duten etxebizitzek beren konposta lortu ahal izango dute, autokonposta egiteko sistema berriaren bidez.

Bosgarren edukiontzia edo edukiontzi marroia eta autokonposta egiteko sistema lurretan eta Abadiñon ezarri behar direla eta, Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoak informazio- eta sentsibilizazio-plan bat abiarazi du, udalerrri horietako herritarrei eta hondakin-ekoizle txiki eta handiei zuzendua.

Planean, jarduera ugari daude aurreikusita, edukiontzi berria jartzeko kanpainaz eta edukiontziaren ezaugarriez informazioa emateko. Besteak beste, blog bat sortuko da, informazioa argitaratuko da amankomunazgoaren eta udal egokien webguneetan, kontsulterei telefonoaren eta posta elektronikoaren bidez erantzuteko zerbitzu bat jarriko da, kale-plazetan informazio-guneak ipiniko dira, informazio- eta dibulgazio-materiala zabalduko da, eta informazio-saioak nahiz jarduera zehatzak antolatuko dira hondakin-ekoizle txiki eta handientzat; adibidez, denda eta enpresentzat.

Borondatezkoa da kanpainen parte hartzea. Ekimenean parte hartu nahi duten familiek eta ekoizleek amankomunazgoak horretarako prestatutako bideak erabiliz egin ahal izango dute, eta, horren ondorioz, behar den material guztia doan jasoko dute.



Bosgarren edukiontzia (marroia)

Helburu nagusia hondakin organikoak eta gainerako hondakinak bereiztea da. Bosgarren edukiontzian edo edukiontzi marroian, hondakin hauek sar ditzakegu: kozinatu ez ditugun lekaleen, fruten, barazkien eta pasten hondarrak, bai eta landareen hondarrak eta fruten hezurak ere. Orobat sar ditzakegu papera eta paperezko ahozapi zikinak. Edukiontzi horretan ezingo ditugu sartu haragi-, arrain- eta gazta-hondarrak, arrautza-oskolak, animalientzako janaria, lurra, pixoihalak eta zigarro-puntak.

Bosgarren edukiontzirako foroak eta informazio-guneak

IURRETAN:

DATA	ORDUA	TOKIA	EKINTZA MOTA
02/06	10:30-13:30	Merkatua izaten den tokiak, Dantzari Kalea	Informazio-gunea
02/13	19:00-20:00	Ibarretxe Kultur Etxea	Partaidetza-foroa
02/21	18:00-21:00	Dantzari Kalea	Informazio-gunea
02/27	19:00-20:00	Ibarretxe Kultur Etxea	Partaidetza-foroa
03/13	19:00-20:00	Ibarretxe Kultur Etxea	Partaidetza-foroa

MATIENAN (ABADIÑO):

DATA	ORDUA	TOKIA	EKINTZA MOTA
02/05	10:30-13:30	Merkatua izaten den tokian, Perulanda Kalea	Informazio-gunea
02/12	19:00-20:00	Errota Kultur Etxea	Partaidetza-foroa
02/23	11:30-14:30	Matienako elizaren inguruan	Informazio-gunea
02/26	19:00-20:00	Errota Kultur Etxea	Partaidetza-foroa
03/12	19:00-20:00	Errota Kultur Etxea	Partaidetza-foroa



Etxeko konpostajea

Esperientzia hori lorategia edo lurra duten etxebizitzetan sustatuko da. Edukiontzia marroiarekin ez bezala, etxe-konpostaketak edozein hondakin organiko onartzen du, bai freskoak, bai eta kozinatutakoak. Sistemari esker, hondakin organikoak etxean trata daitezke, eta lorategietan nahiz ortuetan erabiltzeko konposta da horren emaitza.

Etxeko konpostajerako tailerrak eta informazio batzarrek

IURRETAN:

DATA	ORDUA	TOKIA	EKINTZA MOTA
01/27	18:30-20:00	Amezketako Txokoa	Informazio-batzarra
01/28	18:30-20:00	Orozketako Txokoa	Informazio-batzarra
01/30	18:30-20:00	Ibarretxe Kultur Etxea	Informazio-batzarra
02/17	19:00-20:00	Ibarretxe Kultur Etxea	Tailerra
03/03	19:00-20:00	Ibarretxe Kultur Etxea	Tailerra

MATIENAN (ABADIÑO):

DATA	ORDUA	TOKIA	EKINTZA MOTA
01/29	18:30-20:00	Errota Kultur Etxea	Informazio-batzarra
01/31	18:30-20:00	Astola Etxea	Informazio-batzarra
02/19	19:00-20:00	Errota Kultur Etxea	Tailerra
03/05	19:00-20:00	Errota Kultur Etxea	Tailerra

Informazio gehiagorako:
organikoa.mdurango@bizkaia.org

946 23 25 22